AISIALDI EGITARAUA 2025-2026

zirimola

EGONALDIAK

Alloko aterpetxea	LH 3-6 eta DBH 1-2
Ur egonaldiak Zuhatzako uhartean	LH 5-6 eta DBH 1-2
Eski alpinoa Aretten	LH 5-6, DBH, Batxilergoa eta Lanbide Heziketa
Surf egonaldiak Zarautzen	LH 5-6, DBH eta Batxilergoa
Trukaldia	LH 4- 5-6 eta DBH 1-2
Bardeetako martxa	DBH 3

SASOIKO EMAN HEGOAK

Negulekuak	HH 3 - LH 3
Udaberrilekuak	HH 3 - LH 3

HARRERA ETA MURGILTZE-PROGRAMAK

Pulunpa! Emozioetatik euskaraz	Harrera eta murgiltze-programa

FORMAZIOA

Zirimolako Hezitzaile Eskola	310 ordu | Batxilergoa
Hezkuntza ez-formaleko langileentzako formazioa	6 ordu

AISIALDI HEZITZAILEA

Bizijolas	HH5-LH6



ALLOKO EGONALDIAK

Tahona Ikastolen Aterpetxean

LH 3-6 ETA DBH 1-2

ZER DA?

Euskararen sustapena eta bizikidetza garatzeko aisialdi hezitzailea oinarri duen egonaldia. Adin tarte bakoitzerako diseinatutako programa garatuko da eta Euskal Herriko historia, kultura eta mitologian oinarritutako jolasak, tailerrak eta txangoak bideratuko dira ikasleekin.

NON

Allo-n (Lizarraldea) Ikastolen Elkarteak duen Tahona aterpetxean.

NOIZ

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (apirila-ekaina).

PREZIOA

- Gau bat: 70 €/haur
- Bi gau: 100 €/haur

IZEN-EMATEA

Jarri gurekin harremanetan daten erreserba egiteko.

Bi eguneko (gau bat) eta aste osoko egonaldiak ere antolatzen ditugu.

UR EGONALDIAK

Zuhatzako uhartean

LH 5-6 ETA DBH 1-2

ZER DA?

Zuhatzako uhartean egonaldia. Bertan ikasleek ur ekintzekin eta orientazio, oreka eta bertikaltasun jolas eta jokoekin taldean gozatzeko aukera izango dute, natur ingurune paregabe batean.

NON

Zuhatzako uhartean.

NOIZ

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (maiatza-ekaina).

PREZIOA

- Gau bat: 75 €/pertsonako (ikasle zein irakasle).
- Bi gau: 115 €/pertsonako (ikasle zein irakasle).

IZEN-EMATEA

Jarri gurekin harremanetan daten erreserba egiteko (egonaldiaren data baino urtebete lehenago).

ESKI ALPINOA

Egonaldiak Aretten

LH 5-6, DBH, BATXILERGOA ETA LANBIDE HEZIKETA

ZER DA?
Eski teknikaren hastapen eta trebakuntzarako jarduerekin gozatzeko egonaldia. Zirimolako hezitzaileekin izango dituzte ikastaroak eta baita afal osteko gaubela ere.

NON
Arette-ko eski estazioan (La Pierre de Saint Martin, San Martingo harria). Aterpetxea Maulen (Zuberoa).

NOIZ
Urtarrila, otsaila eta martxoan.

ZEHAZTASUNAK
Eski alpinoa. Egun bakoitzean 2 orduko eski ikastaroa gure hezitzaileekin. Bi egunetako materialaren alokairua (eskiak, botak, makilak eta kaskoa).

Pistetako sarrera-forfaita (2 egunekoa). Bi egunetako pistetako asegurua (hautazkoa). Aterpetxea Maulen (afaria, loa, gosaria eta egun bateko piknik-a). Afalosteko gaubela gure hezitzaileen eskutik.

PREZIOA
2025eko urrian/azaroan aurrekontua eskatu.

IZEN-EMATEA
Jarri gurekin harremanetan daten erreserba egiteko.

Egun bakarreko, hiru eguneko edota gehiagoko irteerak ere antolatzen ditugu.

SURF EGONALDIAK

Egonaldiak Zarautzen

LH 5-6, DBH ETA BATXILERGOA

ZER DA?

Surfaren munduan oinarritzen den bi edo hiru egunetako egonaldia. Bertan ikasleek surfaz gain, bestelako jolas eta jokoekin taldean gozatzeko aukera izango dute, natur ingurune paregabe batean. Axi Muniain Surf Eskolarekin egingo dituzte surf ikastaroak.

NON

Zarautzen, Igerain aterpetxean.

NOIZ

Udazkenean (iraila-urria) eta udaberrian (maiatza-ekaina).

PREZIOA

- Gau bat: 100 €/ikasleko.
- Bi gau: 150 €/ikasleko.

IZEN-EMATEA

Jarri gurekin harremanetan daten erreserba egiteko.

TRUKALDIA

Ikastolen arteko **egonaldia Allon**

LH 4-5-6 ETA DBH 1-2

ZER DA?

Euskal Herriko lurralde guztietako ikasleen topagune izateko sortutako egitasmoa da, herri bakoitzeko euskalki, ohitura, kultur adierazpen eta sormenaren kokaleku.
Ikastola bakoitzak bere baitan antolatzen duen ikasbidaia izatetik, euskal ikasleen harreman-sarea ehuntzen lagunduko duen egitasmoa izatera igaro nahi da.
Jolasak, musika, jaialdiak, gaubelak, eta bestelako ekintza ludikoz beteta egongo dira ekimen honetako egunak eta bizipen hauei esker ikasleen euskararekiko eta euskal kulturarekiko atxikimendua piztuko dugu.

NON

Allo-n (Lizarraldea) Ikastolen Elkarteak duen Tahona aterpetxean.

NOIZ

Ekainaren hasieran. Txanda bakoitza 3 egun eta 2 gauekoa da.

PREZIOA

95€/ikasleko.

IZEN-EMATEA

2025eko ekainean.

Parte-hartzea hautaketa prozesu baten baitan, lurraldetasun irizpideak betetzen direla ziurtatzeko.

BARDEETAKO MARTXA

Orientazioa eta Bizikleta Martxa, Nafarroan

DBH 3

ZER DA?

Euskal Herriko ikastola ezberdinetako gazteen topalekua izatea biltzen duen egitasmoa da. Tuteran orientazio-proba gauzatzen da eta Bardeetako eremu naturalean, berriz, bizikleta martxa.

NON

Errege Bardean eta Tuteran (Argia Ikastolan lo).

NOIZ

2 egun eta gau bat, maiatzaren hasieran.

PREZIOA

50€/haur.

* 2025ko prezioa. Azken prezioa 2026ko aurrekontuaren baitan.

IZEN-EMATEA

2025eko ekainean.

Parte-hartzea hautaketa prozesu baten baitan.

SASOIKO EMAN HEGOAK

Negulekuak eta Udaberrilekuak ikastoletan

HH 3 - LH 3

ZER DA?
Zirimolak garatutako programa, udaleku irekiaren formatuan. Ikastolan burutzen da, oporraldi ludikoa eskaintzeko asmoz eta kontziliaziorako zerbitzu bezela.

NON
Norbere ikastolan.

NOIZ
Neguko eta udaberriko oporretan.

PREZIOA
Egun kopuruaren arabera. Aurrekontua azaroan eta otsailean eskatu.

IZEN-EMATEA
- 2025eko urria-azaroan Negulekuetarako.
- 2026ko otsailean Udaberrilekuetarako.

PULUNPA!
EMOZIOETATIK EUSKARAZ

Harrera eta murgiltze-programa

ZER DA?
Gazteen artean euskara sustatzeko zortzi egunetako programa, ikastolan bertan egiten dena aisialdiko hezitzaileekin. Helburua euskal dimentsioaren ezagutzan eta motibazioan eragitea da, gazteen gustukoak eta gertukoak diren gaiak jorratuz.

NON
Ikastolan bertan.

NOIZ
Ikasturte hasieran hiru edo bost eguneko programa gauzatuko da. Ikasturtean zehar egun bakarreko beste saio guztiak egingo dira, programaren kohesioa ikasturte hasieratik bukaera arte mantenduz.

HEZITZAILE TALDEA
Ikastolen Elkarteko teknikariak.

PREZIOA
1.100€/taldeko.

IZEN-EMATEA
2025eko ekainean.

ZIRIMOLA

Aisialdiko Hezitzaile eskola

BATXI 1 ETA 2

ZER DA?
Aisialdiko hezitzaileak prestatzeko ikastaroa. Eremu ez-formalean lanean aritzeko derrigorrezkoa den titulazioa lortzen da.

NON
Ikastolan bertan.

NOIZ
Ikasturtean zehar. 3 modalitatetan egin daiteke: 2 ikasturtetan, 1 ikasturtean eta era trinkoan.

IRAUPENA
150 ordu teoriko eta 160 ordu praktiko.

FORMATZAILE TALDEA
Aisiola Hezitzaile Eskolako formatzaile esperientziadunekin.

PREZIOA
- Ikastolako ikasleak: 450 €
- Ikastolako ikasle ez direnak: 475 €

IZEN-EMATEA
Modalitatearen arabera, irailean, urtarrilean edo apirilean.

Zuzendari Ikastaroa ere antolatzen dugu.

HEZKUNTZA EZ-FORMALEKO

Formazioa

HEZITZAILEENTZAT

ZER DA?
Hezkuntza ez-formalean lan egiten duten hezitzaileentzat formazioa. Eskolaz kanpoko ekintzatan edo jangelan haur eta gazteekin esku-hartzeak bideratzeko estrategiak zein metodologia desberdinak landuko diren ikastaroa.

NON
Ikastolan bertan.

NOIZ
Ikasturtean zehar.

IRAUPENA
Bi orduko hiru saio, guztira 6 orduko formazioa.

FORMATZAILE TALDEA
Zirimolako teknikariak.

PREZIOA
300€/taldeko (15 pertsonako taldeak).

* Fundae-tik finantzatzeko aukera

IZEN-EMATEA
Jarri gurekin harremanetan datak finkatzeko.

BIZIJOLAS

Aisialdi Hezitzailea

HH5-LH6

ZER DA?
Euskaran eta Euskal Kulturan ardaztutako jolas eta ekintza ludikoetan oinarritutako aisialdirako proposamena da. Euskararen erabilera sustatu, euskararekiko zein euskal kulturarekiko atxikimendua indartu eta bizikidetzarako balio hezitzaileak trasmititzea dira helburu nagusiak.

Programazioa zein ekintzak, haur parte-hartzaileen adinari egokituak dira.

NON
Ikastolan bertan.

NOIZ
Urria-Maiatza. Bazkal orduan edo/eta arratsaldean.

IRAUPENA
Astean ordubeteko bi saio.

FORMATZAILE TALDEA
Zirimolako hezitzaileak.

PREZIOA
25€/ikasleko hilabetean.

IZEN-EMATEA
Jarri gurekin harremanetan eskaintza finkatzeko.

INFORMAZIOA, ESKAERAK ETA IZEN-EMATEA

www.zirimola.eus
943 445108
zirimola@ehi.ikastola.eus

ikastolenelkartea